

MUNDUKO GAUZA BAKARRA

Bazen behin Saharan bizi zen mutiko bat. Alamed izena zuen eta hamaika urte zituen. Saharan zuten bizimodua txarra zen pobreak zirelako. Alamedek zorte ona izan zuen hiru anai-arreba handiagoak zituelako. Handienak hogei urte zituen, hurrengoak hamasei eta besteak hamairu. Alamed beraiekin batera, lanean hasi zen beharrarengatik. Gutxi gorabehera idazten eta irakurtzen zekien.

Egun batean, udan Nafarroara joateko zozketa egin zuten, famili batzuk udan bost ume eramane nahi zituztelako. Zozketa eginez, bost ume atera behar zuten eta Alamedi ez zitzaion tokatu. Baina konturatu ziren ateratako ume bat ez zegoela, eta beste papertxo bat aterata Alamedi tokatu zitzaion. Alamed oso kontent zegoen, bakarrik pentsatuta janari ona eta oinetakoekin ibili behar zuela. Nolako poza hartu zuen!! Gainera bere anai-arrebak oso kontent jarri ziren.

Bidaiaren eguna iritsi zen, eta Alamed urduri zegoen baina era berean kontent, joan behar zuen etxera, bere adineko mutil bat zegoelako. Saharan kotxe bat zegoen bera itxoiten eta Alamed bere familiakoei muxu bana emanekotxera igo zen. Iruñera iritsi zenean, han zegoen bere beste familia itxoiten: aita, ama eta Julen.

Etxera igo zirenean, Julen, bideojokoekin jolasten hasi zen Alamedi kasurik egin gabe. Alamedek pentsatu zuen gauza asko izanda ez zarela hobeto bizitzen. Kalera atera zirenean parke batean gelditu ziren Julen eta Alamed jolasten, bere gurasoek erosketak egiten zituzten bitartean. Julen berehala aspertzen zen eta "nintendoa" aterata Alamed bakarrik uzten zuen.

Poliki-poliki egunak pasata, Julen konturatu zen Alamed lagun berriak egin zituela, pozik zegoela, eta orduan bera ere hori lortu nahi zuen. Bere buruan zerbait aldatu zen eta bideojokoekin ez zuen batere jolasten. Alamedekin jolastu nahi zuen egun guztian. Julen beste mutiko bat zen. Horrela Julen eta Alamed oso lagunak egin ziren. Baina zorte txarrez udaren azken eguna iritsi zen. Hoberena zen biak bata bestearengandik ikasi zutena, eta zoriontsua izateko gutxi behar dela.